

Diputazio Generala eta eraginak

Deia, 1977-08-13.

PSOE-k erakutsi du jokuaren karta bat: bakarrik irabazi nahi duela.

Honek ez du esan nahi, Lehendakari Leizaola-ri egin dion proposamena edo aurre-proiektua berez txarra denik. Behintzat, Nafarroaren arazoaz emandako hitza bete du.

Baina, nola bete du?

Lehengoa esaten genuenez, PSOE ez da Autonomi Frontea osatu zuten alderdiak gai hontaz egin dituzten batzarretara azaldu; hau, berez, ez da joko garbia. Gero, Leizaola jaunarengarra bakarrik joateak ere zerbait adierazten du: bakarki egindako zerbait erakusteko joera honen susmotzarreko protagonismoa.

Lehendakari Leizaola-ri PSOE-koak aurkeztu dioten asmoa zein da? Diputazio General Probisional bat. Egia esan, hau ez da PSOE-ren jatorrizko asmo bat. Hau EAJ-ak proiektu bezala aurkeztua da orain dela hilabete batzu Julio Jauregi-ren bitartez. Jauregi jauna, Bederatzi famatu haien artean erakunde berrien bila ibili zirenean.

Hau ez da, beraz, berria.

Berria dena hauxe da: PSOE bakarrik ari dela aurre-proiektu honekin bere jokua egiten.

Haurreartze hau egiteko eskubidea ezin dio PSOE-ri inork uka. Ba du, talde politiko denez, gauzak bere gisa askatasun osoan egiteko eskubidea. Baina, ba dira giza-legezko diren arau batzu, baita politika arazoetakoak direnean ere. Eta esango nuke gaur eta hemen politika arazoan dela behar bada giza-lege hau beharrezkoen. Ba ditugu gur artean nahi baino istilu gehiago, orain beste fiakaitzkeria berrietan sartzeko.

Ez da, bada, Euzkadin pertsonalkeri hau ondo hartua izan.

Orain arte, EAJ-k ez du hontaz ofizialki ezer esan. Behar bada, bere kasa ez du esan beharrik, ez dakit; baina herriak, bai, espero du zerbait, eta merezi ere merezi du.

Nik nere aldetik jakin dut EAJ garrantzi berdineko beste lan bat egiten ari dela. Ez litzateke PSOE-n antzeko Diputazio General eta Probisional bat izango, lehen Alderdiak berak asmatua izan ba zen ere.

Ba da une hontan gure herriko diputatu eta senatoreak kezkatzen dituen arazo bat: Nafarroa, Nafarroa, abertzale geranontzat lehenengo mailako hauzi larria da. Hala, aurretik PSOE-k hontaz zalantza bat eta erdi izan bazituen ere, gero hontaz emandako hitza bete du, eta Nafarroak arretatu da. Ez behar bada guk ikus bezala, baina erakunde bakar batean lau eskualdeak egoteko bide politiko eta instituzional bat onartu du.

Baina EAJ-k ez luke, ematen duenez, Nafarroaganako dugun kezka hau PSOE-n bide berdinetik jokoratuko.

EAJ-ren jokabidea, Foruen Berriztaketa baten bidez joango litzateke. Honela, 1936-go urtean lortutako Autonomiak zuen Nafarroaganako huts hura ertzeratuko luke, eta 1893-go Lege gaiztoak txarrerako lotzen zituen lau herrialdeak lotuta, eta orain onerako, geratuko lirateke.

Zein neurritan, hau hauzi konplejoa da.

Baina bidea ona da.

Honen bitartez lau anaiak elkarbide bat aurkitu eta hemendik pakto bidez (inolatan ere ez gure artean bortxakeriarik) Estatuto neurri bateko hain behar dugun zerbaitetara, iritxiko ginateke.

Baina nola nahi ere, alderdi abertzaleek, eta batez ere EAJ-k, esan behar du zerbait.

Zor dio herriari argibide hau.